

Iruñea-Tutera autobidea doakoa izan dadin eskatu dute hamazazpi udalerririk


Tafallarainoko tartean bidesaririk ez izatea nahi dute, oso gutxi erabiltzen delako

Erredakzioa / Iruñea

Iruñea-Tutera autobidea, A-15 hain zuzen, hiriburutik Tafallarainoko bidean doakoa izateko eskatu dute Nafarroako hamazazpi udalerritako ordezkariak. Herriotako zirkulazio handi eta arriskuetsua saihestea du helburu eskaera horrek. Era berean, errepide zati premia-tsuenetan autobiderako sarrera-irteerak egitea proposatu dute.

A-15 autobidea irekitzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari hamazazpi udalerritako ordezkariak. Hona-ko herri hauek egin dute eskaera: Añorbe, Barasoian, Beriain, Biurrun-Olkotz, Garinoain, Oloritz, Orisoain, Puiu, Tafalla eta Untzueko udalek; eta Etxague, Mendibil, Oloritz eta Tiebas-Muru Artederretako kontzejuak. A-15 autobidea Iruñea-Tutera bidea egiten du. Aho batez onartu dute udalerririk erabakia, Barasoaingo Udalak proposatu eta gero. Udalerriok N-121 errepideak zeharkatzen ditu, zeinak oso trafiko handia baitu.

Udalerrion irudiko, auto eta kamioi zirkulazioa gero eta handiagoa da errepide horretan, eta, Jose Javier Armendariz Oloritzko alkatearen hitzetan, Orbako ibarreko biztanle gehienek Iruñean edo Tafallan lan egiten dute, eta egunero joan-etorria egin



Iruñea eta Tafalla arteko bidea egiten dute eskaria egin duten udalerritako biztanle gehienek.

behar izaten dute herritik hirira. A-15 autobideari ez zaiola behar bezalako errendimendurik ateratzen azpimarratu dute, eta hoberena Iruñetik Tafallako bidean bidesaririk ez ordaintzea litzatekeela diote.

Egunero 13.000 ibilgailu

Bidesaririk ez ordaintzeko eskaera egitea ongi hausnartu dute hamazazpi udalerririk. N-121ean askotan oso handia eta arriskuetsua da zirkulazioa. Olga Artozki Muru Artederretako eta Arri-zabalako Kontzejuko presidentearen hitzetan, egunero

13.000 ibilgailu igarotzen dira bere udalerritik. Ez da kexatu den ordezkari bakarra. Francisco Fernandez Beriaingo alkateak ere errepide horretako kamioi trafikoa «kaotikoa» dela dio, eta herritarrek bizia arriskatzan dutela egunero. Kontuan izan behar da Beriaindik gertu hainbat harrobi ustiaketa daudela eta kamioien joan-etorri etengabea dela.

Barasoainen bildutakoek batzorde bat eratu dute, aurrerantzean egiten dituzten bileretan hartzen diren erabakiak betetzeko.

Erabaki gehiago ere hartu zituzten han bildutakoek. Hala, heldu den udal hautes-

kundeetan parte hartzen duten alderdiei A-15 autobideko bidesariari buruz duten iritzia eskatzea hitzartu zuten hamazazpi ordezkariak. Ildo beretik, batzordeak Erriberako herriekin ere bilerak egin nahi ditu, guztiok bateraturik Iruñea-Tutera autobideko bidesaria kentzea eskatzeko Gobernuari.

Barasoainen hitzartutako akordioa duela gutxi Tiebas herrian egindakoaren gisakoa da. A-15 autobidea autobia bihurtzeko eskatu dio Tiebasek Nafarroako Herri-lan Sailari, horrela inguruan gertatzen diren hainbat istripu eragotzi egingo lirakeelako.

EAEko autobideak garestiago gaurtik

GAURTIK aurrera garestiago dira Euskal Autonomia Erkidegoko autobideak. Europistasek kudeatzen dituen autobideetako bidesaria % 1,46 garestitu dute. Espainiako Sustapen Ministerioak eman die prezioa igotzeko baimena autobide horietako bidesariak kudeatzeko kontzesioa duten enpresei.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bilbo-Behobia (A-8) eta Bilbo-Logroño-Zaragoza (A-68) autobidean izango du eragina prezio igoerak.

Prezio igoera horren ostean, Bilbo eta Durango arteko bidesaria, adibidez, bost pezeta garestiago izango da gaurtik aurrera. Autobideak ustiatzeko emakida duten enpresek prezioa «berri ere» Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) baino gutxiago igo dela nabarmendu dute.

Igoeraren iragarpenak bat egin du bidesarien aurka *A-8 Doan Akordio Soziala* elkarteak hasitako ekimenarekin. Talde horretako kideek «intsu-misio kanpaina» jarri dute abian bidesaririk ez ordaintzeko; izan ere, bidesaririk ez ordaintzeko deia egin diete euskal herritarrei. Europistasi, A-8 autobidea kudeatzen duen enpresari, emana diote ekimen horren berri *A-8 Doan Akordio Soziala* taldeko kideek. Kanpaina aurrera ateratzeko, txekak banatu dituzte herritarren artean ekimenaren bultzatzaileek.